

Aralar elkarteak dio 14 eta 18 urte arteko gazteen %4k joko nahasmendua dutela

- Jokatzeko hasteko batez besteko adina 15 urte dira, eta Aralarren arabera «premia handia» dago hezkuntzan lehenbailehen «prebentzio ekintzak indartzeko».
- Teresa Burgi Aralarreko koordinatzaileak aipatu du Nafarroan gaur egun ez dagoela sarbide kontrolik ausazko jokoaerako.

Julen Ugartemendia Carcedo

Gero eta adingabe eta gazte gehiago dabilta ausazko jokoa, sarean zein aurrez aurre, eta «kezkarritzat» jo dute hori; diotenez, Nafarroan datuek erakusten dute egoerak «berhalako esku hartzea» behar duela. Hori adierazi du Nafarroan ludopatiaren laguntzan eta prebentzioan jarduten duen Aralar elkarteak. Izan ere, jakinarazi du diruarekin egiten den joko «aisialdiaren parte» bihurtu dela adin txiki-koen eta gazteen artean, eta 12 eta 13 urtekoen artean, lehen aldiz, gehiago direla jokoa aritzen direnak alkohola edaten dutenak baino. Horrez gain, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren arabera, azken urtean 14 eta 18 urte arteko ikasleen %31,5ek diruarekin jokatu dute, eta jokatzeko hasteko batez besteko adina 15 urte dira. Aralarrek, datuek erakusten dutenagatik kezka adierazteaz gain, praktika horiek ekarri dituzten ondorioak ere plazaratu ditu. Elkarteak koordinatzaile Teresa Burgi (Legazpi, Gipuzkoa, 1963) esan du Nafarroan 14 eta 18 urte arteko pertsonen %4k joko nahasmendua dutela; helduen artean %lekoa da kopurua. «Uste dut problematikaren datu oso esanguratsua dela hori», adierazi du Burgik.

Gaur egungo egoeraren aurrean, Aralar elkarteak ikastetxeen garrantzia azpimarratu du. Esan du «premia handia» dagoela lehenbailehen «prebentzio ekintzak indartzeko» hezkuntza eremuan, eta prebentzioa ezin dela hasi jada arazo bat garatuta dagoenean. Hala ere, Burgik adierazi du ikastetxeetan ikasleak kontzientziatzeko «kezka handia» dagoela: «Hezkuntza zentroetan jarduerak egiteko Aralarren dugun eskaria oso handia da. Geroz eta sentibilitate handiagoa dago, geroz eta adin goiztiaragoetan». Aipatu du tailerrak batxilergoan

egiten zizutela lehen, eta orain DBHko azken mailetan. Arazoari aurre egiteko dauden baliabide eskasengatik hitz egin du: «Oraintxe, irakasleak ez daude trebatuta. Ez dute tresnarik identifikatzeko noiz izan daitekeen joko problematikoa». Izan ere, ludopatia «ikusezina» dela azaldu du. Adierazi du substantziazko adikzioak «oso agerikoak» direla baina ludopatian, berriz, pertsonen sintoma batzuk «asko disimulatzen» dituztela, eta horien artean aipatu ditu urduritasuna, antsietatea, umore txarra edo bakartzea. Horrez gain, esan du familia askok sintoma horiek nerabezaroarekin identifikatzen dituztela joko problematikoaekin baino.

Sendotasun falta

Jokoak ekar ditzakeen arriskuen inguruan instituzioek gazteak babesteko egiten duten lanari dagokionez, Burgik esan du Aralarrek aitortzen duela horretan «pauso handi bat» eman zela 2022an onartutako Jokoaren Foru Legearen aldaketarekin. Hori «oso garrantzitsua» izan dela nabarmendu du, «sarbide kontrola ezartzen duelako». Dena den, azpimarratu du legearen aldaketa ez dela «nahikoa». Lege horretan jasoa dago Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak «prebentziozko programa espezifikoak» jarriko dituela «ikastetxeetan ezar daitezkeen», eta hitzarmenak sinatu ahal izango dituela «jokoarekin lotutako patologiai saihesteko helburua duten erakunde eta elkarteekin». Hala ere, Aralarrek dio programa hori oraindik ez dela zabaldu. Gainera, Burgik esan du hiru urte pasatu direla legearen aldaketa onetsi zenetik araudia aurten onartu arte, eta behin hori eginda joko enpresei beste urte bat ere eman dietela «haien sarbide sistemak egokitu ditzaten», kontrol hori egin ahal izateko. Horrez gain, elkarteak



Iruñeko Sanduzelai auzoko bizilagunen protesta bat apustu etxeen aurka. IÑIGO URIZ / FOKU

koordinatzaileak azaldu du Aralarrek eskatu zuela lege horretan sartzea joko aretoetan ezin dela alkoholik saldu, baina ez zutela hala egin, eta aldaketa izan dela «graduazio baxuko alkohola» saldu ahal izango dela. Legea 2026ko martxoan sartuko da indarrean, eta Burgik dio «gehiegiruditzen zaiela legearen agindua betetzeko lau urte pasatzea».

Legearen beste puntu bat ere aipatu du Aralarrek. Izan ere, legeak dio «inola ere» ezingo dela eman baimenik «joko establezimendu espezifikoak» instalatzeko besteak beste hezkuntza, kirol, kultura eta osasun zentroetatik laurehun metrora. Baina horrek irekiko diren establezimendu berriei bakarrik eragiten die, eta Burgik azaldu du orain ia ez dela lokal berririk irekitzen Nafarroan, eta lehen zudenak dauden lekuan geratzen direla: «Neurriak ez die eragiten, eta horietako asko ikastetxeen inguruan daude». Legea oraindik ez denez indarrean sartu eta sarbide kontrolik ez dagoenez, Burgik komentatu du hezkuntza zentroeta-



«Ausazko jokoa inork ez du arrakastarik. Aukera hori ez da existitzen»

TERESA BURGI

Aralar elkarteak koordinatzaile

«tik gertu dauden taberna askotan langileek apustu makinak desentxufatzen dituztela, «mutikook joko ez dezaten».

Gizonetan ohikoagoa

Burgik nabarmendu du gazteek ez dituztela ausazko jokoa «arrisku» moduan ikusten. Gehien jokatzeko dituzten ausazko jokoei dagokienez, «argi eta garbi» kirol apustuak gailentzen direla dio Burgik, eta horren on-

doren erruleta. Bi horietan batez ere gizonak aritzen direla esan du. Nafarroan, 14 eta 18 urte arteko pertsonen artean, %4k joko nahasmendua dute, baina adin horretako gizonen artean %6,8k dute, eta emakumeen artean, berriz, %1,1ek.

Burgik nabarmendu du joko problematikoko kasuetan oso garrantzitsua dela laguntza profesionala eskatzea, eta azpimarratu du ludopatia gaixotasun bat dela eta horrela tratatu behar dela. «Ausazko jokoa inork ez du arrakastarik. Aukera hori ez da existitzen. Gaur ez bada, bihar izango da, edo etzi. Galdutako egina dute», adierazi du Burgik.

Azaroan, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak antolatutako *Egin apustu zure alde, ez zaitez arriskatu* ihes gela egingo da Iruñean, Tafallan eta Tuteran. Horren helburua gazteak «jokoari lotutako arriskuak» sentibilizatzeko da, eta, bereziki kirol klubei zuzendua badago ere, interesa duen edonork parte har dezake, aurretik izena emanda. ●